

OLABIDE'tar ERRAMUN, S. I.



Gazteiz'en jayo zan 1869'ko epaillaren 15'an. Amabost urtekin sartu zan Yesusen lagundiko (1884'ko azaroak 7); eta ogeita amairukin eman zun lenbiziko meza (1902). Elizgizonen legezko ikastaroz gañera, Salamanca'ko Unibertsidadean Filosofi ta Letrak burutu zitun. Il, berriz, Prantziko Tolosa'n il zan, 73 urtekin, 1942'ko agorraren 9'an.

Gazteiz jayoleku, oar zagun. Andoaindarra zun, alare, aita. Amak, ordea, ez jakin euskerarik. Ezta gure Erramunek ere etzun ezagutu, gutxiago menderatu, gero beste inortok bezanbat jakingo zun euskera. Umetzaroko utsune au, ezin estali izan zun gerora maixututakoan ere. Ez bait-zan sekula gauza izan, lagunarteko izjarduriotan, parra-parra euskera jarduteko, adixkideai beti izkuntza ortan mintza-erazten zien arren. Berezko menduz ere ez bait-zan iztuna, ez etorri aundiko; zedarrikiro ta banan-banan itzak eralgi zale baizik.

Berezko legortasun ori idazketan ere nabarmen zaio. Argatik, nunbait, asmatu baño itzuli egin izan zigun bere liburuetan. Itzulketan nabari zaigu maixu, ta maixu goren-go, zintzo ta zeatz. Galizian irakasle zalarik, gizon-duta gero, euskerari buru ta biotz ikasten ekin zion gazteiztar onek zer irakatsirik asko beti izango du, gure elearen barru-muñak eta tolez izkutuak azterkatu eta igertzeko orduan.

Aipa ditzagun bere liburuak. GOGO-IÑARKUNAK, Lo-yola'koaren liburua euskeraz, alegia; ta KRISTOREN

ANTZBIDEA. Iñor izatekotan, gure Olabide noski, itzulzale giarra ta zuzena. Amaika esakera egoki ta doi baditu liburu oietan, gazteen jakinbidetzat ezezik geroko maixuen ikasgarrirako ere. GIZA-SOÑA'n, aldiz, iñondik bildu dituzken gorputz-atalen itzak badakartzi, zarren liburuetatik eta erriaren abotik iñarrosita; ta ez itz berri gutxi, antziñako ezjakinetik berpiztuta.

Baño, Olabide'ren izena ezilkortu dun liburu nagusia bere Biblia dugu, eladeratik kolpean itzulki: ITUN BERRIA ta, oraindik argitaratzeke, ITUN ZARRA. Euskeraz emandako lanik neketsu ta garaienetakoa, zalantza gabe; atera dun zalaparta, ainbatekoa ez izan arren. 1931'an argitara zan Itun berria, Bilbo'n. Arrezkeroz Jesukristotzaz sortu zaizkigun liburu ederrak (Iraizoz'ena, Oyartzabal'ena, Orixe'ren meza-liburua...) Olabide'ren orpoz-orpo datoz, arri jarraika, aren mugarri ta irakatsiak begietatik galdu gabe. Euskera gogortxo duala esan oi da sarri, ta ez arrazoi gabe. Yesulagun jakintsuak, ordea, etorkizun luzerako idatzi zun. Ituna, gure mintzoa umatu ta elduko zala uste zaneko aldietarako. Gure izkuntzak, bere ezurrutsetan, duan sendoa, ta beste izkuntzetatik itzik itz aldatzeko duan gaitasun arrigarria non ikus obeki, naiz ebanjeliotako naiz Paul donearen idazkietako zenbait zati oietan baño?

Ondo merezia zunez, euskaltzaiña izan zan gure Akademiaren sorrera bertatikantxe. Badira bost, euskal-akademikoetan, meritu ta kostu gutxiagokin otsandi ta txalo geiago eraman dutenak; munduak eman etzion saria ordaindu deiola zeruak eta etorkizunak, atzerriko atsekabeetan bere azken urteak buka zitun euskaltzale yaiolari.

Ain zuzen, Arantzazu'ko ma Birjiñaren eguneantxe il zan, agorraren 9'an. Goizaldera, meza emateko ordua zala-ta, gelara joan zitzaizkion billa lekaideak. Antxe topa zuten, silla batean exerita, parre-antzez, parre-antzez... Ilda zegoanik ere ez omen zun ematen. Ez egon bear ere, euskaltzaleon eskerronean ta gogorapenean, ainbeste aundiko euskal-langille etsikaitzak.—S. M.